AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

SEGURTASUN SAILA

1390

EBAZPENA, 2013ko otsailaren 27koa, Giza Baliabideen zuzendariarena, zeinaren bidez iragartzen baita noiz jarriko den Herrizaingo Saileko eta Euskal Herriko Polizia Ikastegiko iragarki-tauletan 2012ko ekainaren 12an emandako ebazpenaren ebazpen osagarria. Ebazpen horren bidez, behin betiko esleitzen dira Ertzaintzako karrerako funtzionarioentzat gordetako lanpostuak betetzeko prozeduran –2012ko urtarrilaren 19ko Ebazpenak deitutakoan– meritu-lehiaketa bidez betetzekoak diren Ertzaintzako lanpostuak.

Segurtasuneko sailburuordearen eta Giza Baliabideen zuzendariaren 2012ko urtarrilaren 19ko Ebazpenaren bidez, onartu eta argitaratu zen Ertzaintzako karrerako funtzionarioentzat gordetako lanpostuak betetzeko deialdia. Bada, ebazpen horren hamargarren oinarrian ezarritakoarekin bat etorriaz, eta azaroaren 23ko 303/2010 Dekretuaz aldatutako abuztuaren 28ko 471/2009 Dekretuak ematen dizkidan eskumenak baliatuaz, honako hau

EBAZTEN DUT

Bakarra.– Jakitera ematen da 2013ko otsailaren 27an jarriko dela Herrizaingo Saileko eta Euskal Herriko Polizia Ikastegiko iragarki-tauletan Giza Baliabideen zuzendariaren 2013ko otsailaren 12ko Ebazpena, 2012ko ekainaren 12an emandakoaren osagarria. Ebazpen horren bidez, behin betiko esleitzen dira Ertzaintzako karrerako funtzionarioentzat gordetako lanpostuak betetzeko prozeduran –2012ko urtarrilaren 19ko Ebazpenak deitutakoan– meritu-lehiaketa bidez betetzekoak diren Ertzaintzako lanpostuak.

Erandio, 2013ko otsailaren 27a.

Giza Baliabideen zuzendaria,
MIREN KARMELE ARIAS MARTINEZ.